

Proiektuaren deskribapena

Gurpildun aulki elektrikoan doazen pertsonentzat beso mekanikoak sortuko ditugu, beraien behar nagusiak asetzeko. Adib.: lurretik gauzak hartzeko, motxilatik materiala ateratzeko, bazkaltzeko, leku garaietara iritsi ahal izateko...

Garatuko ditugun sistema motak:

→ Gurpildun aulkiaren mandoaren bidez kontrolatzeko.

Besoak titaniozkoak izango dira, metal hau arina eta gogorra baita.

3 beso izango dira. 2 beso aulkiaren atzeko aldean kokatuko dira, handiagoak eta luzeagoak izango dira, aulkiaren atzeko zatira errazago irits daitezten. Beste besoa aulkiko beso-euskarriaren azpian kokatuko da, lurrera eta gertuko gauzetara iristeko.

Gainera, beso hauek kalean ibiltzeko ere baliogarriak izango dira. Gure lehiakideen produktua (geroago modu sakonean azalduko dugu) ez dirudi kalean edo etxetik kanpo erabil daitekeenik.